



LEGAZPIKO
UDALA

JAIETAKO PROGRAMETARAKO PORTADA AUKERATZEKO LEHIAKETA

Herriko bi jai nagusietako egitarauen azala izango da aukeratua, Maiatzekoetan “Maiatzeko” eta irailekoetan “Agorreko” hitza gehituz.

1.- LANAK: Pertsonako bi lan aurkeztu ahalko dira.

2.-PARTAIDETZA: Legazpin erroldatuta egotea edo Legazpin ikasi eta lan egitea eta 16 urte izatea (2008an edo lehenago jaiok)

3.-EZAUGARRIAK:

- Edozein kolore eta eratako lanak onartuko dira: argazkia, collage, pintura...
- Lanen neurria honako hauek izan behar dute, 148x210mm (A5) edo horren proportzioa gordetzen duen beste tamaina bat. Formatuak nahitaez bertikalak izan behar dira.
- Gaia eta agertu beharreko testua “Santikutz Jaiak 2024. Legazpi” izango da eta beste inolako testurik ez da agertu behar.
- Lanak ezingo du inolako aldarrikapen sexistarik edo politikorik izan, ezta alkoholaren edo drogen kontsumoarekin zerikusirik duen mezurik, irudirik edo bestelako elementurik. Lanak inoiz argitaratu gabeak izan behar dute, eta behar diren irudi baimenak izan behar dituzte.

4.-SARIA: 300€

5.-LANAK AURKEZTEKO MODUA:

- a) Euskarri fisikoan: lanak Kultur Etxeko sarreran aurkeztuko dira. DINA4 neurriko bi gutun-azaletan. Batean lana joango da, besteak parte hartzailearen datuak jarriko dira: izen-abizenak, helbide elektronikoa eta telefono zenbakia. Gutun-azal biei izenburu berdina jarriko zaie. Lan bakoitzeko sobre bat aurkeztuko da (lan bat baino gehiago arkezteko aukera badago)
- b) Formatu digitalean: formatu digitalean egindako lanak azala@legazpi.eus helbidera bidali ahalko dira. Lanaren amaierako dokumentuan (pdf edo jpg formatuan), eta lana formatu bektorialean bidali beharko da. Egilearen datuak zehaztu behar dira mezuan.

6.-AURKEZTEKO EPEA: 2024ko Otsailaren 2a, 13:00ak baino lehen.

7.-EPAIMAHAIA: Epaimahaia Jaietako lan taldeak erabakiko du. Jaietarako egokiena den lana aukeratuko da eta hartutako erabakia apela ezina izango da. Epaimahaia hala erabakitzen badu, lehiaketa hutsik geratu daiteke.

8.-LANEN ESKUBIDEAK: Saritutako lan guztiak Legazpiko Udalaren jabetzan geratuko dira, eta lan horien erreprodukzio eta erakusketarako eskubidea beretzat gordeko du.

9.-OHARRA: Lehiaketara aurkezteak baldintzak goitik behera onartzea dakar.